

FUNDACIÓN VITAL FUNDAZIOA 2018: ARABAKO ELKARTE ETA ERAKUNDEEK GARATU BEHARREKO JARDUERETARAKO ETA PROIEKTUETARAKO BIGARREN LAGUNTZA DEIALDIA

Deialdiaren helburua:

Laguntzak ematea du helburu, norgehiagoka erregimenean, euren jarduera Fundación Vital Fundazioaren jardun-eremuetan garatzen duten elkarte eta erakunde arabarren proiektuei eta jarduerari, eta lehentasunez, honako hauei:

Ikertzaile nagusiak bete beharreko baldintzak:

- UPV/EHUREkin funtzionario edo kontratu lotura izatea eskaera aurkeztu duen une beretik eta proiektua gauzatu bitartean.
- Ikertzaileari atxikipenez dagokion UPV/EHUko saila edo institutua Araban egotea.

Ikertaldeko kideek bete beharreko baldintzak:

UPV/EHUREkin funtzionario edo kontratu lotura izatea eskaera aurkeztean.

OHAR GARRANTZITSUA: Baldin eta diru laguntza gauzatu bitartean ikertaldeko ikertzaileei UPV/EHUREkin duten lotura amaitzen bazaie, ezin izango dute gasturik egotzi aipatutako egoeran dauden bitartean. Ikertzaile nagusiak eman beharko dio Ikerketaren arloko errektoreordeari proiektua gauzatu bitartean gertatzen diren bajen berri.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- a. [Eskaria egiteko orria \(on line\)](#)
- b. Proiektuaren nondik norakoa eta kronograma
- c. Aurrekontua

Aurrekontua prestatzeko jarraibideak:

- Kasu guztietan beharrezkoa da ikertzaile nagusiak proiektua kofinantzatzea:
 - Aurrekontu osoa 50.000 eurotik gorakoa denean, laguntza gehienez ere % 40koa izango da.
 - Aurrekontu osoa 20.000 eurotik 50.000 eurora bitartekoa denean, laguntza gehienez ere % 50koa izango da.
 - Aurrekontu osoa 20.000 eurotik beherakoa denean, laguntza gehienez ere % 90koa izango da.
- UPV/EHUREn bidez aurkeztutako eskaerek zehar kostuen % 5a jaso beharko dute aurrekontuan.

OHAR GARRANTZITSUA: 2008ko apirilaren 29ko Erabakian –horren bidez agintzen da UPV/EHUko Estatutuen 315. artikulua garapen arautegia argitaratzeko– jasotakoa aplikatuz, **irakasle-ikertzaileek ezin izango dute nominan ordainsaririk jaso deialdi honen bitartez.**

Eskaerak aurkezteko epea:

2018ko maiatzaren 21era arte

UPV/EHUren datuak eskaera orria betetzeko:

Hauek dira erakundearen (UPV/EHU) datuak eskaera betetzeko:

- Legezko ordezkaria: Jose Luis Martín González
- Kargua: Ikerketaren arloko errektoreordea
- IFK: Q-48/18001-B
- Egoitza: Sarriena auzoa, z/g
- Posta kodea: 48940
- Herria: Leioa
- Harremanetarako helbide elektronikoa: convocatorias.dgi@ehu.eus

Eskaerak UPV/EHUen aurkezteko prozedura:

EPEMUGA	ARDURADUNA	IZAPIDEA
2018ko maiatzaren 16a <i>Data horretatik aurrera ez da bermatuko ordezkari legalaren abala behar duen dokumentazioa epe barruan bueltatuko denik.</i>	Ikertzaile nagusia	I. eranskina eta aurrekontua bidali, berrikusteko.
2018ko maiatzaren 21a	Ikertzaile nagusia	Bidali eskaera osoa artxibatzeko: convocatorias.dgi@ehu.eus

OHAR GARRANTZITSUA: Ikertzaile nagusiak izango du eskaria epean aurkezteko ardura.

UPV/EHUko kontaktua:

- Telefonoa: 94 601 80 08
- E-maila: convocatorias.dgi@ehu.eus

Fundazioarekin harremanetan jartzeko:

- Tel.: 945 776 858

Informazio gehiago:

<https://www.fundacionvital.eus/eu/2018-laguntza-deialdia>